

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	FORMA ALDATZEKO ETA ORRAZTEN HASTEKO MUNTAKETAK	Iraupena	90
Kodea	MF0059_1		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Ile-apainketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ile-apainketako zerbitzu osagarriak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza	Higienea eta asepsia ile-apainketan (zeharkakoa)	Iraupena	40
	Ilearen kolorea aldatzeko kosmetikoak erabiltzea		80
	Ile-apainketako zerbitzu osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		120

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0059_1 gaitasun-atalarekin: FORMA-ALDAKETA ALDI BATERAKOAK ETA IRAUNKORRAK EGITEKO ETA ORRAZTEN HASTEKO MUNTAKETAK EGITEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Forma-aldaketa aldi baterakoak eta iraunkorrak egiteko edo orrazten hasteko moldeak muntatzeko behar diren tresnak, aparatuak eta gehigarriak hautatzea.

EI1.1 Forma-aldaketa baten muntaia garbitasun- eta desinfekzio-kondizio ezin hobeetan egiteko behar diren tresnak eta gehigarriak deskribatzea, ile-motari eta egin nahi den orrazkerari erreparatuta.

EI1.2 Forma-aldaketaren prozesu batean erabiltzen diren tresnak, aparatuak eta moldeak hautatzeko orduan eragiten duten faktoreak azaltzea.

A2: Ilearen forma-aldaketaren prozesua aztertzea.

EI2.1 Ilearen ezaugarrien eta kondizioen arabera, forma-aldaketan egin beharreko urratsak deskribatzea.

EI2.2 Aldi baterako forma-aldaketaren prozesuan ileari eragiten zaizkion aldaketak azaltzea.

EI2.3 Ilearen forma aldi baterako aldatzeko erabiltzen diren prozedura fisikoak deskribatzea.

EI2.4 Ilearen aldi baterako forma-aldaketak errazten eta mantentzen dituzten kosmetikoak aipatzea, bai eta haien konposizioa eta jarduteko modua ere.

EI2.5 Forma-aldaketa iraunkorra egiteko behar diren faseak deskribatzea.

EI2.6 Forma-aldaketa iraunkorraren faseetan egiten diren eraldaketak eta erabiltzen diren kosmetikoak azaltzea.

A3: Ilearen aldi baterako forma-aldaketa lortzeko moldeak edo osagarriak haien tokian jartzea.

EI3.1 Profesionala eta bezeroa babesteko neurriak azaltzea.

EI3.2 Aldi baterako forma-aldaketa egiteko moldeak jartzean bezeroa prestatu eta eserarazteko prozedura azaltzea.

EI3.3 Teknikari arduradunak gainbegiratuta moldeak jartzeko kasu praktiko batean:

- Ile-mota eta ilearen egoera aztertzea.
- Aplikatu beharreko teknika ilearen egoerari egokitzea.
- Forma-aldaketa egiteko muntaketan behar den molde- edo osagarri-tamaina eta -mota zehaztea.
- Nahi den efektua lortzeko, muntaketen norabide zuzenen adierazpide grafikoa egitea.
- Forma-aldaketa egiteko muntaketa prestatzea.
- Kosmetikoa ondo hautatzea eta aplikatzea.
- Esposizio-denbora kontrolatzea.

EI3.4 Eskuko lehorgailua erabiliz aldi baterako forma-aldaketa lortzeko:

- Lehorgailuaren tenperatura eta distantzia ile-motaren eta ilearen egoeraren eta hezetasun-mailaren arabera egokitzea.
- Erabiliko diren tresnak aplikatuko den teknikaren arabera egokitzea.

EI3.5 Bezeroaren gogobetetze-maila ezagutzeko galderak egitea, bai jasotako arretari buruzkoak, bai eskaintako zerbitzuari buruzkoak.

A4: Forma-aldaketa iraunkorra lortzeko teknikak trebetasunez aplikatzea.

EI4.1 Profesionala eta bezeroa babesteko neurriak azaltzea.

EI4.2 Aldi baterako forma-aldaketa egiteko, bezeroa prestatu eta eserarazteko prozedura azaltzea.

EI4.3 Teknikari arduradunak gainbegiratuta forma-aldaketa iraunkorra egiteko kasu praktiko batean:

- Produktu moldekatzailearekiko sentikortasunaren proba egitea bezeroari.
- Ilean mota eta egoera eta tolerantzia-maila aztertzea.
- Forma-aldaketa egiteko muntaketan behar den molde-tamaina eta -mota zehaztea.
- Lortu nahi den efektuaren arabera teknikari arduradunak adieraziko duen norabidean ezartzea moldeak.
- Teknikariak hautatutako kosmetiko erreduktorea aplikatzea ilea homogeneoki bustiz.
- Prozesua (esposizio-denbora, tenperatura, produktu-garbitzeta, hala badagokio, eta abar) teknikariaren argibideei jarraituz kontrolatzea.
- Kosmetiko neutralizatzailea homogeneoki aplikatzea eta, esposizio-denbora igaro ondoren, ilea urez garbitzea eta egokitzea.

EI4.4 Bezeroaren gogobetetze-maila ezagutzeko galderak egitea, bai jasotako arretari buruzkoak, bai eskaintako zerbitzuari buruzkoak.

Edukiak

1. Ilean forma-aldaketak eta aldaketen oinarriak.

- Ilea: Funtzioa, kontzeptua eta ezaugarriak.
 - Ile-moten sailkapena.
 - Ilean egitura eta ezaugarriak.
- Aldi baterako forma-aldaketen oinarriak.
 - Erabiltzen diren prozedura fisikoak.
 - Ilean eragina duten faktoreak: trakzioa, beroa, hezetasuna eta beroari lotutako hezetasuna.
- Ilean forma-aldaketa iraunkorren oinarriak: Aldaketak ilearen egiturari.
- Forma-aldaketa iraunkorrek ilean eragindako efektuak.

2 Forma-aldaketa aldi baterako eta iraunkorretarako kosmetika eta aparatuak:

- Forma-aldaketa aldi baterakoak egiteko eta orrazten hasteko kosmetika espezifikoak.
 - Jarduera-motak eta -mekanismoa. Produktu egokitzaileak: bolumen-emaileak, aldi baterako kizkur-kentzaileak, argizariak eta abar. Finkatzaileak. Akabera-produktuak.
 - Zuzen kontserbatzeko, manipulatzeko eta aplikatzeko jarraibideak.
 - Aldi baterako forma-aldaketetarako produktu kosmetikoak hautatzeko irizpideak.
- Forma-aldaketa iraunkorretan erabiltzen den kosmetika espezifikoak.
 - Jarduera-motak eta -mekanismoa. Uhindu aurreko kosmetiko babeslea. Produktu erreduktoreak. Sentikortasun-proba. Produktu neutralizatzaileak.
 - Zuzen kontserbatzeko, manipulatzeko eta aplikatzeko jarraibideak.
 - Forma-aldaketa iraunkorretarako produktu kosmetikoak hautatzeko irizpideak.
- Ilean forma-aldaketa egiteko eta orrazten hasteko aparatuak eta tresnak.
 - Aparatuak: eskuko ile-lehorgailua eta kasko-itxurakoa.
 - Tresnak: eskuilak, orraziak, pintzak, moldeak, osagarriak eta abar.
 - Ilean forma aldatzeko aparatuak eta tresnak maneiatzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko lanak.
 - Segurtasuna eta higiena, forma aldatzeko prozesuetako aparatu elektrikoak erabiltzean. Aparatuak berrikustea: entxufeak, kableak, konexioak.

3 Aldi baterako forma-aldaketak egitea eta orrazten hastea

- Erabili beharreko teknikaren arabera, tresnak, aparatuak eta osagarriak hautatzea.
- Aldi baterako forma-aldaketak egiteko teknikak.
 - Hezetasuna erabiliz eta ondoren lehortuz: erruloak, uztaiak, ur-uhinak, eskuko ile-lehorgailua, moldeak, toga.
 - Lehorrean: ile-kizkurgailuak, plantxak, molde eta finkatzaileekin, uztaiak edo eraztunak.
- Forma-aldaketen exekuzio teknika. Orrazkera-estiloak: Akabera, oinarritzko orrazkera bilduak, ile-luzapenak eta berrikuntzak.
- Eskuz lehortzeko teknika-motak.
 - Lisatua.
 - Kizkurra.
 - Kiribilak.
 - Orrazkera informala.
- Aldi baterako forma-aldaketetan eta orrazten hastean izan daitezkeen arriskuak prebenitzeko profesionala babesteko neurriak.
 - Higiena.
 - Janzkera.
 - Lanerako jarrera higieniko egokiena.
- Aldi baterako forma-aldaketetan eta orrazten hastean bezeroa babesteko neurriak.
 - Janzkera.
 - Jarrera higieniko gomendagarria.

4 Forma-aldaketa iraunkorrak egitea

- Forma-aldaketa iraunkorren faseak.
- Forma-aldaketa iraunkorreko teknikak: ballabide teknikoak eta exekuzioa.
 - Uhinak egitea: zuzenean, zeharka, partzialki eta abar.
 - Kizkurak kentzea: normala, termikoa.
- Teknika berritzaileak.
- Forma-aldaketa iraunkorrean arriskuak prebenitzeko profesionala babesteko neurriak.
 - Higienea.
 - Janzkera.
 - Lanerako jarrera higieniko egokiena.
- Forma-aldaketa iraunkorretan bezeroa babesteko neurriak.
 - Janzkera.
 - Jarrera higieniko gomendagarria.
- Forma-aldaketa iraunkorretan produktuekiko sentikortasunaren proba.

5 Forma-aldaketako prozesuaren ebaluazioa eta kalitate-kontrola

- Ilean forma-aldaketako zerbitzuetako kalitatearen kontzeptua, ebaluazioa eta kalitate-kontrola.
- Ilean forma-aldaketaren zerbitzuan kalitatea definitzen duten parametroak.
- Kalitatea ilearen forma-aldaketaren zerbitzua aplikatzean eta saltzean.
- Ilean forma-aldaketaren zerbitzuak eskaintzean lortutako emaitzak baloratzea eta gertatutako desbideratzeak zuzentzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ile-apainketako zerbitzu osagarriak.